

BALOREZKO PROPOSAMENA

Asmatu dugun proiektua, merkatuan eragina izateaz gain, erabiltzaile eta bezeroen bizitzan hainbat aldaketa eragiteko asmoarekin diseinatutakoa da.

Proiektua deskribatzen genuenean aipatzen genuen ekintza mota bakoitzean oinetako mota ezberdina behar dela, baina baita oinetako horietan aldatzen zena eta garrantzia handia zuena zola zela. Oinetakoak garestiak dira, eta ariketa desberdin bat egin nahi izatekotan, beste oinetako bat erosteko beharra agertzen da, oinetakoetan diru kantitate itzela gastatzea suposatzen duena. Beraz, zera pentsatu genuen guk: "Oinetakoetan garrantzitsuena zola bada, zergatik oinetako osoak erosi, eta ez, ordea, zola bakarrik?".

Hori da gure asmakizunak egiten duen lehenengo proposamena: bezeroentzako produktuak merketzea. Zolak, bakarka, oinetakoak baino merkeagoak izango lirateke, eta bezeroek ez lituzkete beste oinetakorik erosi beharko.

Bestalde, gure produktuekin batera, status bat saltzen dugu gizarte-onarpen bat. Kalitate onetako materialak izanik, elite mailako kirolariek erabiltzeko erreminta izan daiteke. Ondorioz, gure produktuak daramaten pertsonen kirolari horiei erlazionatuko dituzte, eta gizartearen onespina izango dute.